

AKTA

UDAL OSOKO OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko ohiko batzarra bildu da:

Eguna: 2025/09/24

Ordua: 18:00-ak

Tokia: Udaletxeko Areto Nagusian

Bertaratuak:

Alkatea: Joana Mendiboure

Zinegotziak:

EHBildu

Agustin Lekuona Irastorza
Olaia Lasa Olaziregi
Garazi Urdampilleta Astibia
Ibon Mitxelena Fernandez
Nora Velez del Burgo Zalakain
Jexux Olaziregi Bagües
Edorta Fernandez Etxepeteleku
Oihana Irastorza Gonzalez
Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi
Ibintza Iragorri Iriarte

EAJ-PNV

Janire Mitxelena Lekuona
Rafael Bergaretxe Urdampilleta
Maitane Larruskain Agirre
Iñaki Arbelaiz Mitxelena

Idazkaria:

Xabier de la Mota Vazquez

Kontu-hartzailea:

M^a Jesus Otaegi Irureta

Ezin etorria adierazi dute:

AZTERGAIK:

1. Aurreko batzarrari dagokion aktaren onarpena.
2. Lezo, Oiartzun eta Pasaiko udalerrietako gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako eguneko Arreta Zerbitzuaren Erregelamendua onartzea. (2025ID340005)
3. Construcciones Pagamuño SL. Lanbarren poligonoko LAN-1A azpiaren Xehetasun Azterketa behin betiko dokumentua onartzeko eskaera. (2022HI430002)
4. Oiartzun bizitegi merkatuko tentsio eremuen izendapenerako espedienteari hasiera ematea (2025HI590001)
5. 2026rako Zerga Ordenantzen aldaketa (2025ER010001)
6. Trafikoko Buruzagitza Nagusia erakunde autonomoak eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak informazioa trukatzeko eta elkarri laguntzeko sinatutako hitzarmenari atxikitzea. (2025ZZ200050)

7. Musika-eskola zerbitzu publikoa ezartzea. Hasierako onarpena. (2025ID120004)
8. Enplegu-planen eta toki-garapenaren arloko lankidetzaz-hitzarmena, Oarsoaldea, S.A., Errenteriako Udala, Lezoko Udala, Pasaiko Udala eta Oiartzungo Udalaren artean. (2025ZZ200051)
9. BERRI EMATEA. 2025-KALD-000005-00 kreditu aldaketaren onarpena.
10. Beste ekitaldietako ordainagiriak baliogabetzea.
11. Beste organoen jardueraren jarraipena.
12. Eskari-galderak.

Esan-eginak eta erabakiak

Alkateak hasiera eman dio bilkurari.

-I-

AURREKO BATZARRARI DAGOKION AKTAREN ONARPENA

2025eko irailaren 24ean egindako Udal Osoko ohiko bilkuraren akta onartu ziren aho batez, aldeko 15 botorekin (EH Bildu 11, EAJ/PNV 4)

-II-

LEZO, OIARTZUN ETA PASAIAKO UDALERRIETAKO GIZARTE-BAZTERKETAKO EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO EGUNEKO ARRETA ZERBITZUAREN ERREGELAMENDUA ONARTZEA

Alkateak ongi izateko Olaia Lasa zinegotziari hitza ematen dio. Eraikina Lezon kokatuta dagoela dio, obrak amaituta daudela eta hitzarmena hiru udal herri desberdinen artekoa denez, tramiteak luzeak izaten direla dio, baina pixkanaka hauek amaitzen ari direla. Jakinarazten du hemezortzi plazako eguneko zentro bat dela eta batzar honetatik pasatzen dena bertako araudia dela, bai langileriarena baita bertako erabiltzaileak bete behar dituzten baldintzena ere, laburbilduz, hiru herrien artean adostu den barne araudi bat dela dio.

Idazkariak adierazten du espedientea hiru udalek kontsulta publikoan jartzen dutela, alegaziorik egon ezkerro hauek landu eta gaia berriro Udal Osoko batzarretik pasa beharko zela, baina ez badago alegaziorik onartutzat joa dela.

Guzti hau kontutan hartuta, Kontuhartzailea eta Idazkariaren txostenaren baitan eta Herritarren batzorde informatzaileak 2025eko irailaren 17an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako

AKORDIOA

Lehena.- Hasierako onespina ematea Lezo, Oiartzun eta Pasaiaiko udalerrietako gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako Eguneko Arreta Zerbitzuaren Erregelamenduari, eranskinean jasota dagoena.

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea, hogeita hamar egun baliouduneko epean, administrazio-espediente hau, erreklamazio edo iradokizunen ondorioetarako, hain zuzen ere iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita. Epe horretan interesatu guztiek Udal bulegoetan espedientea aztertu ahal izango dute eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututako lekuetan eta moduetan.

Jendeari erakusgai egoteko epea igarotzen bada inolako erreklamaziorik edo oharpenik jaso gabe, behin betiko onartutzat joa da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

- III -

CONSTRUCCIONES PAGAMUÑO SL. LANBARREN POLIGONOKO LAN-1A AZPIAREN XEHETASUN AZTERKETA BEHIN BETIKO DOKUMENTUA ONARTZEKO ESKAERA.

Alkateak azaltzen du, Lanbarreneko eremu honen proiektuak Hotel bat duela oinarri. 2024ko urriaren 22an Tokiko Gobernu Batzarrak dokumentuari hasierako onarpena eman ziola. Proiektua jende aurrean egon zen eta ez zen inongo alegaziorik aurkeztu, gerora bestelako txosten batzuk gehitu dira, horietako bat Foru Aldundiko bide azpiegituretako departamenduak egindakoa, ADIF-ek ere egin zuen zegokion txostena eta horiekin batera azterketa akustikoa etab. gehitu ziren espedientera.

Horretaz gain, hirigintzak emandako txostenaren bigarren puntuak dio, 90.000€tan zehaztutako hirigintza-ekintzak sortutako gainbalio ordaindu beharko duela sustatzaileak. Gainera, hainbat txosten iraungita geratu direnez berriro eskatu beharko dituzte.

Guzti hau kontutan hartuta, Lurralde batzorde informatzaileak 2025eko irailaren 3an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako

AKORDIOA

Lehenengoa.- CONSTRUCCIONES PAGAMUÑO SL sustatzaileak aurkeztu, JAVIER LEKUONA ERRANDONEA arkitektoak egin eta Euskal Herriko Arkitektoen elkargo ofizialak 2025eko uztailaren 17an sendetsitako “Lanbarren poligonoko LAN-1A azpiaren Xehetasun Azterketa. 2025eko uztaila. Behin betiko onarpenerako dokumentua.” dokumentuari behin betiko onarpena ematea.

Bigarrena.- Xehetasun azterketaren 4.10 atala “Administrazioak hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan parte hartzea”. Egindako zuzenketaren inguruan honakoa adieraztea:

- Zuzenketa jaso den arren oraindik urbanizazio karga gehikuntzaren konpentsazioa egingo dela adierazten da. Hori ez da horrela, administrazioari hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioaren kalkulua urbanizazio kargarik gabe egin behar da, 2/2006 Legearen 27. artikularen arabera.
- Ondorioz, eremuko kudeaketa tresnaren onarpenarekin edo obretarako baimena eskuratzearekin batera 90.000 €tan zehaztutako hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioa ordaindu beharko da.

Hirugarrena.- Urbanizazio lanetarako baldintzak:

- LAN 1A eremuko eraikuntza eta barne urbanizazio lanak egiteko obretarako baimen eskaerarekin batera eremuari dagokion urbanizazio lanak gauzatzeko beharrezkoa diren eguneratutako alorretako baimenak aurkeztu beharko dira.
Kontuan izan 2019ko urriaren 29an Tokiko Gobernu Batzordeak CONSTRUCCIONES PAGAMUÑO SL enpresak aurkeztu eta JUANJO ARRIZABALAGA ETXEBERRIA arkitektoak egindako “LAN-1A eremuaren garapenean Lanbarrenberri herri bidea hobetzeko egitasmoa eta informazio osagarria” onartu eta obretarako baimenean adierazi

zela Arkotz kalea 6 orubeko jarduera ireki aurretik urbanizazio lana amaituta egon beharko zela.

B) Egitasmoaren tramitazioan honako txostenak jaso ziren eta obretan hasi aurretik eguneratu beharko dira:

- i. Gipuzkoako Foru Aldundiko Bideazpiegituretako departamentuaren txostena 2019ko otsailaren 28koa, bi zuzenketa eskatu ziren eta sustatzaileak 2019ko ekainaren 28an aurkeztutako dokumentazio osagarrian jaso ziren. Epeak bete direnez sustatzaileak obra hasi aurretik berriz eskatu beharko du baimena.
- ii. ADIFen txostena 2019ko uztailaren 4ean jaso genuen. Aldeko txostena zen, bertan obra gauzatzeko sustatzaileak egin beharreko tramitea zehaztu zen. Epeak bete direnez sustatzaileak obra hasi aurretik berriz eskatu beharko du baimena.
- iii. ETS txostena 2019ko irailaren 20an jaso zen. Epeak bete direnez sustatzaileak obra hasi aurretik berriz eskatu beharko du baimena.

Laugarrena.- Ebazpen hau eta dokumentuaren arautegia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean, hedapen gehieneko egunkarian eta web orrian argitaratzea eta sustatzaileari jakinaraztea. Xehetasun azterketaren araudia atalak euskaratzeko eskatuko zaio sustatzaileari.

Bostgarrena.- Erabaki honen berri ematea hirigintzaren arloan eskumena duen foru-organoari.

Seigarrena.- Azterketa akustikoak adierazi bezala, 213/2012 Dekretuaren arabera Babes Akustiko Bereziko Zona izendapena egiteko dokumentazio aurkeztu, Plan Zonala barne, eta tramitatu beharko da.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

- IV -

OIARTZUNGO UDALA. OIARTZUN BIZITEGI MERKATUKO TENTSIO EREMUEN IZENDAPENERAKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA.

Gai honek duen garrantziarengatik aurrerago batzar honetara bueltatuko den espediente bat izango dela dio Akateak. Kontestuan kokatze aldera, 2024ko udazkenean udalak Eusko Jaurlaritzari Oiarzun eremu tentsionatua izendatzeko baldintzak betetzen zituen aztertu zezan eskatu zion. Garai artan, baldintzak betetzen ez zirela jakinarazi zitzaion udalari, baina 2025eko udaberrian, Eusko Jaurlaritzako etxebizitza sailak, herri guzietako berrazterketa bat egin zuen, horko datuak ikusi ondoren ulertzen da Oiarzungo udalerriak betetzen dituela eremu tentsionagarri izendatzeko bete behar diren baldintzak.

Ondorioz, egokitze jotzen dela denborarik galdu gabe lan honi ekitea honek eskatzen dituen justifikazioekin hau da, Oiarzungo udalerriak betetzen dituela baldintzak. Horretaz gain, izendapenaren ondoren, zehaztu beharko direla zeintzuk diren udalak hartuko dituen neurriak etxebizitzaren inguruan.

Janire Mitxelena zinegotziak hitza hartzen du ondorengoa esanez:

“Gure taldetik uste dugu Oiarzun etxebizitzaren egoerak kezka sortzen duela eta beharrezkoa dela gure herritarrei etxebizitza duina eta eskuragarria bermatzeko neurriak hartzea. Horregatik, egokitze jotzen dugu Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean aritzea eta gure udalerria bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu gisa izendatzeko prozedura hastea.

Deklarazioak bakarrik ez du arazoa konpontzen. Deklarazio horrek plan zehatz eta errealista behar du berekin: neurri egokiak, finantzaketa argia eta herritarren parte-hartzea.

Guk babesaren ematen diogu prozedura honi eta lankidetzaren eskaintzen dugu, gure herritarrek etxebizitza aukera gehiago izan ditzaten eta gure udalaren eskumenak errespetatuz. Horrela, deklarazio ez da izen huts bat izango, baizik eta tresna erreal bat.”

Alkateak bere adostasuna agertzen du eta era berean azpimarratu nahi du, nahiz eta soluzioa ematea ez dagoen beraien esku bakarrik eta lan neketsua izateaz gain, gogor ekiteko asmoa dutela.

Guzti hau kontutan hartuta, Idazkariak emandako txostena eta Lurralde batzorde informatzaileak 2025eko irailaren 17an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako

AKORDIOA

Lehen.- Espedientea hasia Eusko Jaurlaritzan etxebizitza-arloko eskumena duen sailari Oiarzongo udalerria bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu deklaratzeko prozedura hasteko eskaera aurkezteko.

Bigarrena.- Ondorioz, agintzea honako dokumentazio hau prestatu dadin, eskaerari erantzeko:

- Bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu izendatzeko proposatzen den eremua mugatzea.
- Justifikazio-memoria, etxebizitzaren estatuko legean zehaztutako edukiarekin.
- Garatu nahi den neurrien plan espezifiko, bai eta haren kronograma ere, aurreikusitako 3 urteko indarraldirako. Plan horretan, Eusko Jaurlaritzaren edo beste administrazio batzuen laguntza behar duten finantzaketa-beharrak, laguntzak edo hitzartutako jarduerak adierazi beharko dira.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

- V -

2026RAKO ZERGA ORDENANTZEN ALDAKETA

Alkateak azaltzen du, proposatzen den aldaketan, nabarmentzekoa KPI-aren arabera eguneraketa orokor bat egingo dela, salbuespenak salbuespena, izoztuak geratzen direla zenbait tasa, besteak beste, udaletxe gela erabilera, taxi zerbitzua edo etxez etxeko laguntza zerbitzu publikoa.

Aipatzekoa %3-a bada ere gehienetan aplikatuko dena eta zenbait tasa izoztuta geratuko diren arren, hondakinen bilketari dagokion petxan % 18-ko igoera aplikatzea proposatzen dela, honen arrazoia Europako legeak eskatzen duen zero defizitera iristea dela beraz, herritarrei eskatzen zaien azken ahalagin extra da, hortik aurrera petxa honen igoerarekin bakarrik ez gara iritxiko zero defizitera baina bai aurreikusten da udalak badituela beste lan batzuk egiteko eta espero da horiekin bai iritxiko garea.

Zergei dagokionez, etxebizitza hutsak dituztenentzako gaitzargua ez aplikatzeko salbuespenen artean berri bat aplikatuko dela gehitzen du Alkateak, lehen salbuespena zuten hirugarren adinekoen egoitzetan zeuden herritarrek ez zuten tasa ordaintzen orain salbuespen horri, mendekotasun egoeran dauden pertsonak etxebizitza hutsa edukitzeagatik ez zaiela gaitzargua aplikatuko gehitzen zaio.

Beste salbuespen bat, kiroldegiko 65 urtetik gorako erabiltzaileentzako izango litzateke lehengo urtean hauek tarifa murriztua eskatzeko eskubidea zuten, orain hauei dituzten diru sarreraren arabera gehiago murriztuko zaie tarifa.

Azkenik, Landetxe eraikinak dagoeneko bi urte bete dituela adierazten du alkateak, aipatzen du maiz eta modu oso egokian erabiltzen dutela herriko eragileek, eta Udaleko beste hainbat areto era pribatiboan erabiltzen diren bezala, Landetxeri ere erabilera hori emate arren tasak ezartzen direla, beti ere, salbuespenak kontutan hartuta.

Janire zinegotziak hitza hartzen du, ondorengoa esanez:

“Oiertzungo EAJ-PNVtik adierazi nahi dugu babesa emango diogula aurkeztutako ordenantza fiskalei. Uste dugu azken asteotan egindako lanak eta bilerak ekarri duela proposamen orekatua, eta hori positibotzat jotzen dugu.

Aurten gehien nabaritzen den igoera hondakinen tasan dago, %18ko izanik. Argi dago igoera hau beharrezkoa dela, izan ere, tasa urteetan defizitarioa izan da eta ezinbestekoa da pixkanaka defizit hori murriztea. Horrez gain, badago Europa mailako marko bat, zeinek eskatzen baita hondakinen tasa ez izatea difizitarioa. Hori kontuan hartuta hartu da erabaki hau, udal guztiei mugak ezartzen dizkien araudi baten barruan.

Garrantzitsua da azpimarratzea, ordea, udal talde politiko biek gai honi buruzko elkarrizketak izan ditugula. Urteetan eztabaida gogorrak ekarri dituen gaia izan da hondakinen kudeaketa, baina oraingoan gai izan gara elkarrekin eseri, egoera aztertu eta proposamenak lantzeko, bakoitzak bere iritzia mantendu arren. Eta lanean jarraitzen dugu sistemak hobera egin dezan. Horixe da gure erronka: herritarrek egiten duten ahalegin handiagoa jasotzen duten ahalegin handiagoa jasotzen duten zerbitzu hobe batean islatu dadila.

Era berean, oso positiboa deritzogu terrazak arautzeko ordenantza lantzeko asmoari. Garrantzitsua da udalerriko ostalaritzari eta merkataritzari babesa ematea, baina aldi berean espazio publikoa modu bidezko eta orekatuan antolatzea. Horrek oreka ekarriko du bai herritarrentzat bai ostalaritzarentzat.

Laburbilduz, pozgarria da gai hain eztabaidatua eta korapilatsua den honetan elkarrizketa eta lankidetzaren nagusitu izana. Guretzat helburu nagusia argi dago: oiertzuar herritarren ongizatea. Eta gaurko erabaki hau norabide horretan emandako urratsa dela ulertzen dugu.”

Egindako elkarlan eta iritxitako adostasunarengatik esker hona adierazten du Alkateak, burututako lana pozgarria dela dio, baina oraindik egiteko asko geratzen dela azpimarratu du. Lan taldeak dagoeneko bidehorri bat prestatua daukala eta beraien partetik lan horretan jarraituko dutenaren konpromezua berresten du.

Azkenik, Alkateak azpimarratu nahi du, zerga ordenantzak baduela helburu bat eta hori kohesioa dela hau da, egoera baztergarrian egon daitezkeen herritarrek besteek bezalako aukerak edukitzea. Era berean herriari zerbitzu publiko egoki bat ematea eta horrek eskatzen dituen eguneraketak egitea beharrezkoa dela dio Alkateak.

Guzti hau kontutan hartuta, Antolaketa eta Kontu Bereziak Batzordeak, 2025eko irailaren 18an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako

AKORDIOA

Lehenen. 2026 urteko zerga eta petxen kasuan %3ko igoera onartzea eta tasei buruzko Ordenantza Fiskalen aldaketa, zerrendatzen diren diru-sarrera eta ahalmenei eragiten diena, hasierako izaeraz onartzea, eranskinean jasotzen den moduan:

Bigarrena.- Gipuzkoako Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoarekin bat, aipatu espedientea jendaurrean jartzea 30 laneguneko epeaz. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, web orrialdean eta udal iragarki oholean dagokion iragarkia argitaratutako da (epea GAOko argitalpen-egunaren biharamunean hasiko da). Jendaurreko epea amaiturik, alegaziorik ez balego, ordenantzen aldaketa behin betiko izaeraz onartutzat joko da eta testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta egoitza elektronikoan argitaratuko da.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzia		

- VI -

TRAFIKOKO BURUZAGITZA NAGUSIA ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA ESPAINIAKO UDALERRIEN ETA PROBINTZIEN FEDERAZIOAK INFORMAZIOA TRUKATZEKO ETA ELKARRI LAGUNTZEKO SINATUTAKO HITZARMENARI ATXIKITZEA.

Hitzarmena sinatu ez gero, udalak herritarrei zerbitzu onuragarri bat eskaintzeko aukera edukiko duela dio Alkateak.

Hitzarmena erakundeen arteko informazioa trukaketan datza eta desplazamenduak ekidite aldera, lehen Trafikoko Buruzagitzan egiten ziren tramiteak Herritarren Arreta Zerbitzuan egin ahalko direla.

Guzti hau kontutan hartuta, Idazkariaren txostena eta Antolaketa eta Kontu Bereziak Batzordeak, 2025eko irailaren 18an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako

AKORDIOA

Lehenengoa.- Onartzea bere osotasunean atxikitzea Trafikoko Buruzagitza Nagusia erakunde autonomoak eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak informazioa trukatzeko eta elkarri laguntzeko sinatutako hitzarmenari, eranskin bezala doana.

Bigarrena.- Alkatea baimentzea hitzarmena sinatzeko, baita bere osagarri diren beste edozein dokumentu sinatzeko ere.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzia		

- VII -

MUSIKA-ESKOLA ZERBITZU PUBLIKOA EZARTZEA. HASIERAKO ONARPENA

Udaberrian plenoan landutako gaia dela dio Alkateak, zehazki 2025eko maiatzaren 28an. Bertan Udalbatzak musika-eskola zerbitzu publikoaren ardura hartzeko nahia adierazi zuen eta horrekin batera espedienteari hasiera ematea erabaki zen. Horretaz gain, lan talde bat osatu zen proiektuaren inguruko

memoria bat osatzeko eta hainbat ziurtagiri ere eskatu ziren, lehena, Eusko Jaurlaritzari konpetentzi bikoizketarik ez dagoela ziurtatzen zuen agiria eskatu zitzaion eta Foru Aldundiari aldiz, Oiartzungo udalak nahikoa errekurtsio duela adieraztea eskatu zitzaion.

Alkateak azpimarratzen du, egun eskaera horiek eginak daudela baina oraindik ez dela erantzunik jaso, seguraski erantzuna jaso arte denbora asko pasako denez, tramiteekin aurrera jarraitzea proposatzen dio Udalbatzari.

Espedienteari hasierako onarpena emateko txostenak ez direla beharrezkoak dio Idazkariak, prozedurak ez duela zehazten zehazki noizko egon behar duten eta hauek ez egoteak ez dio eragiten erakustaldi publikoan egongo den denbora tarte horri. Beste herrietan dagoeneko martxan dagoen zerbitzu bat da eta orain arte aldekoak izan dira emandako txostenak beraz, aurreikusten da hauek aldekoak izango direla eta egokia dela espedientearekin jarraitzea.

Guzti hau kontutan hartuta, Idazkariaren txostena eta Antolaketa eta Kontu Bereziak Batzordeak, 2025eko irailaren 18an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako

AKORDIOA

Bakarra.- Oiartzungo udalerrian musika-eskolaren zerbitzu publiko berria ematea eta azterketa batzordeak egindako horri dagokion proiektua hasierako izaeraz onartzea eta jendaurrean jartzea, hogeita hamar egun balioduneko epean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita, erreklamazio edo iradokizunen ondorioetarako.

Epe horretan interesatu guztiek Udal bulegoetan espedientea aztertu ahal izango dute eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututako lekuetan eta moduetan.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

- VIII -

ENPLEGU-PLANEN ETA TOKI-GARAPENAREN ARLOKO LANKIDETZA-HITZARMENA, OARSOALDEA, S.A., ERREENTERIAKO UDALA, LEZOKO UDALA, PASAIAKO UDALA ETA OIARTZUNGO UDALAREN ARTEAN.

2023ko enplegu legean oinarritzen den lankidetz hitzarmena dela dio Alkateak. Enplegu planak jasotzen du tokiko erakundeek badutela zer esana eta beraz, behar dutela eskumena eskualdeko edo tokiko enplegu planak sustatzeko, ulertuta tokiko erakundeek ezagutzen dutela egokien beraien inguruko herrien egoera eta lan merkatua oso lotuta dagoela inguruan gertatzen denari horiek horrela, plan honen helburua udalei zenbat eskumen ematean datza, gertuko enplegua sustatzeko aukera eduki dezaten.

Hamar esperientzia pilotu egingo direla azaltzen du Alkateak eta Oarsoaldea da parte hartuko duen eskualdeetako bat. Oiartzun bezala Erreenteria, Lezo eta Pasaia ere atxikituko dira hitzarmen honetara eta ondorengo asmoa Oarsoaldea agentzia garapenari Eusko Jaurlaritzak ematen dizkigun baliabideak erabiliz lan hau egin dezan aginduko zaio.



Guzti hau kontutan hartuta, Kontuhartzailearen txostena, Idazkariaren txostena eta Antolaketa eta Kontu Bereziak Batzordeak, 2025eko irailaren 18an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, hartu du honako

AKORDIOA

Lehenengoa.- Onartzea Enplegu-planen eta toki-garapenaren arloko lankidetzaz-hitzarmena, Errenteriako Udala, Lezoko Udala, Pasaiaiko Udala eta Oiartzungo Udalaren artean, eranskin bezala doana.

Bigarrena.- Alkatea baimentzea hitzarmena sinatzeko, baita bere osagarri diren beste edozein dokumentu sinatzeko ere.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	15	EHBildu, EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-IX-

2025-KALD-000005-00 KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA

Idazkariak azaltzen du, Antolaketa eta Kontu berezien batzordetik pasa ondoren, Udal Osoko Batzarrean berri eman behar den gaia dela beraz, berri ematen da.

-X-

BESTE EKITALDIETAKO ORDAINAGIRIAK BALIOGABETZEA

Ez zegoen ordainagiririk.

-X-

BESTE ORGANOEN JARDUERAREN JARRAIPENA

BESTE ORGANOEN JARDUERAREN JARRAIPENA: HARTUTAKO ERABAKIEN (ALKATETZAREN EBAZPENAK ETA GOBERNU BATZORDEKO AKORDIOAK), PROTOKOLO GASTUEN BERRI EMATEA.

Idazkariak honakoen berri eman die Udalbatza kideei:

- Hartutako erabakiak:

Alkatearen ebazpenak:

2025eko uztailaren 19tik irailaren 19ra arte.

Zk. 2025/1326tik 2025/1641era.

Tokiko Gobernu Batzarra:

Bilkura honen deialdia egin zen eguna arte Tokiko Gobernu Batzarra bitan bildu da, 2025eko irailak 9an eta irailaren 23an, hain zuzen ere.

- Protokolo eta ordezkapen gastuak eta dietak:

2025eko iraila:

Loreak - eskelak	974,53
Jardunaldiak, aurkezpenak	51,26
Bazkariak - luntxak	905,00
Bidaiak	182,83
Ikurriñak, garaikurrak, plakak opariak	118,01
Guztira	2.231,63

ESKARI-GALDERAK

Ez dago eskaera galderarik.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 18:24ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritik Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea



OIARTZUNGO
UDALA

Sin.: Joana Mendiboure

Idazkaria



OIARTZUNGO
UDALA

Sin.: Xabier de la Mota

I.- ERANSKINA

1. Ondorengo salbuespenekin:

1. Interesatuak eskaturik edo udal agintariak luzatu edo aztertuko dituzten dokumentuengatik tasen artean biztanle erroldan ofiziozko baja emango den bakoitzeko petxak eta plakak jartzeagatik ordaindu beharreko zenbatekoak mantendu egiten dira.
2. Taxi-bus zerbitzuarengatik prezio publikoa mantendu egingo da.
3. Udaletxeko gelak erabilera pribatuetarako erabiltzeagatik prezio publikoak mantendu egingo dira.
4. Udal bide publikoaren lurzoru, hegalkin eta lurpearen erabilpen pribatibo edo probetxamendu bereziagatik tasen artean, Festetan postuak edo barrakak jartzeagatik onartutako petxa mantendu egingo da.
5. Etxez-etxeko Laguntza-Zerbitzuaren prezio publikoetan, tarifa orokorrak mantendu egingo dira.
6. Txakurrak jaso eta gordetzeagatik petxa 40,00 €-tan mantenduko da.
7. Beilatokiko erabileraren prezio publikoa 195 €-tan geldituko da.
8. Poligonoetako aparkaleku plazen erreserbagatik prezio publikoak %10eko igoera jasan du.
9. Hondakinen biltzeko petxak %18ko igoera berezia izango du 2022/7 Legean onartutakoari jarraiki.

2. Aldaketak:

1. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) arautzen duen ordenantza hiru aldaketa:
 1. Familia ugariagatik hobaria mantendu da, baina bete beharreko mugetan aldaketa egin da.
 2. Energia aprobetxamendu sistemengatik hobarian, instalazioek bete beharreko baldintzak zehaztu dira eta hobarian muga jarri da obra aurrekontuaren baitan.
 3. Etxebizitza hutsagatik ginkargua ez aplikatzeko salbuespen berri bat gehitu da eta beste bat moldatu da.
2. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ) arautzen duen ordenantza familia ugariagatik hobaria mantendu da, baina bete beharreko mugetan aldaketa egin da.
3. Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza hobari berri bat gehitu da.

4. Landetxe eraikina eta aretoa erabilera pribatuetarako erabiltzeagatiko prezio publikoetan, jai egunetarako eta aste osorako tarifak zehaztu dira eta salbuespenak gehitu dira.
5. Udal kirol instalazioen erabilpenean hainbat aldaketa egin dira:
 1. Tarifa murriztua sortu da 65 urte edo gehiago dituzten eta zehaztutako errenta mailara iristen ez direnentzat.
 2. Matrikula kuotaren salbuespen berria gehitu da 65 urte edo gehiago dituzten bazkide berrientzat.
 3. Termetako matrikula kuotaren salbuespena kendu da.
 4. Momentuan erabiltzeko termetako bi sarrera edo gehiago erosteagatik zehaztuta zegoen deskontua kendu da.
6. Udal bide publikoaren lurzoru, hegalkin eta lurpearen erabilpen pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik tasan, mahaiak, mahaitxoak eta aulkiak jartzeko tarifa bakarra zehaztu da urte osorako. Mahaiak bertan jasotzeagatik ordaindu beharreko tasa ere zehaztu da.
7. Kendu egin da Energia elektrikoaren, gasaren, uraren eta hidrokarburoen garraioarekiko instalazioen aldeko udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik eta aprobetxamendu bereziagatik tasa.
8. Kendu egin da interesdunek argiketak eta istripuen txostenak eskatzeagatik tasa, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioko Erantzukizun Zibilaria eta Aseguruari buruzko Legearen testuategina (urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) eta Aseguru- eta berraseguru-entitateen Antolamenduari, Gainbegiratzeari eta Kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legea aldatzen dituzten uztailaren 24ko 5/2025 Legean adierazitakoaren arabera.
9. Udal hilerrietan zerbitzuak eman eta kontzesioak emateagatik tasan bi kontzeptu berri gehitu dira:
 1. Panteoiko balda bakoitzeko garbiketa.
 2. Hondakinen kudeaketa; hondakinak botatzea balda bakoitzeko.
10. Interesatuak horrela eskaturik, udal administrazioak edo udal agintariek luzatu edo aztertuko dituzten dokumentuengatik tasan aldaketak egin dira.
11. Euskara, Kultura, Gaztedia eta Kirola eta Kirola eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuetatik eskainitako emanaldi, ikastaro eta abarretarako ohiko tasak jaso dira ordenantzan.
12. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantzan tasa berri bat sortu da: *Hautaketa prozesuetan parte hartzeagatik tasa.*

